# EMAITZEN ANALISIA

## ANÁLISIS DE RESULTADOS

## INTRODUCCIÓN

La economía de la C.A. de Euskadi ha registrado unos resultados francamente positivos en los tres últimos ejercicios de la década de los noventa, superando por tercer año consecutivo la barrera de crecimiento del 4,0%. La fase de crecimiento iniciada en 1994 ha seguido su curso a lo largo de seis años sucesivos y las expectativas para el año 2000 sitúan su evolución en cifras similares a las de 1999.

Ha sido el año de 1998, año de referencia de las cuentas del sector industrial que aquí se analizan, el ejercicio de mayor crecimiento económico (6,0%) de todo el período y , una vez más, como viene siendo habitual en los ciclos expansivos de la economía vasca, el sector industrial, con un crecimiento real del 8,7%, ha tirado hacia arriba del conjunto de la economía.

## SARRERA

Euskal AEko ekonomiak emaitza benetan positiboak lortu ditu laurogeita hamarreko hamarkadaren azkeneko hiru ekitaldietan, eta hirugarren urtez jarraian % 4,0ko hazkunde-maila gainditu du. 1994an hasitako hazkunde-aldiak bere bideari jarraitu dio ondorengo sei urteetan, eta, 2000. urteko igurikapenen arabera, ekonomiaren bilakaera 1999aren antzeko zenbakietara iritsiko dela aurreikusten da.

1998. urtea, hemen aztertzen diren industria-sektoreko kontuen erreferentzia-urtea, urte-aldi osoko hazkunde ekonomiko handieneko urtea izan da (% 6,0) eta, berriro ere, gure ekonomiaren ziklo hedakorretan ohikoa izan denez, industria-sektoreak bultzatu du gorantz ekonomia osoa, % 8,7ko hazkunde erreala izan baitu.

1. TAULA / TABLA 1 — *INDUSTRIAREN ETA ERAIKUNTZAREN KONTUAK / CUENTAS INDUSTRIALES Y DE LA CONSTRUCCIÓN* — %

| **BPG-AREN SEKTORE BILAKAERA. HAZKUNDE TASA ERREALAK** EVOLUCIÓN SECTORIAL DEL PIB. TASAS REALES DE CRECIMIENTO | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 (A) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Nekazaritza-arrantza** / Agropesquero | 4,5 | -0,6 | 6,1 | -2,9 | 4,9 | 2,0 | -1,7 |
| **Industria** / Industria | -1,8 | 7,0 | 5,0 | 2,0 | 6,6 | 8,7 | 4,1 |
| **Eraikuntza** / Construcción | -0,6 | 3,3 | 0,9 | -0,9 | 1,9 | 4,5 | 4,5 |
| **Zerbitzuak** / Servicios | -0,1 | 1,6 | 3,3 | 3,1 | 3,3 | 4,2 | 4,2 |
| **BPG m/p** / PIB p/m | -0,8 | 3,3 | 3,5 | 2,5 | 4,4 | 6,0 | 4,3 |

La economía de la C.A. de Euskadi ha mantenido una línea de crecimiento superior a la del Estado y la Unión Europea en los últimos cinco años, acentuándose las diferencias con la media de la UE (15) en el último bienio.

La buena marcha de la economía ha tenido su reflejo en la evolución del mercado de trabajo. Las tasas de creación de empleo del 2,1% de 1996 y 1997 se han acelerado en 1998 y 1999 con incrementos anuales del 5,4% y 4,7%, respectivamente. En el período 95-99 se han generado más de 100.000 empleos netos y de ellos 40.000 en 1998.

Euskal AEko ekonomiak Estatukoak eta Europar Batasunekoak baino hazkunde-bide handiago bati eutsi dio azken bost urteetan, eta azkeneko biurtekoan areagotu egin dira EBko (15) batez bestekoarekiko aldeak.

Ekonomiaren ibilbide onak eragina izan du lan-merkatuaren bilakaeran ere. Enplegu-sortzearen tasak % 2,1ekoak ziren 1996 eta 1997an; 1998 eta 1999an, aldiz, bizkortu egin dira, % 5,4 eta % 4,7ko hazkundeak izan baitituzte, hurrenez hurren. 1995-99 aldian 100.000 enplegu garbitik gora sortu dira, eta horietatik, 40.000 1998an.

2. TAULA / TABLA 2 — *INDUSTRIAREN ETA ERAIKUNTZAREN KONTUAK / CUENTAS INDUSTRIALES Y DE LA CONSTRUCCIÓN* — NU

| **BPGaren URTE ARTEKO HAZKUNDE ERREALA** CRECIMIENTOS INTERANUALES DEL PIB REAL | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Euskal AE** / C.A. Euskadi | -0,8 | 3,3 | 3,5 | 2,5 | 4,4 | 6,0 |
| **Estatua** / Estado | -1,2 | 2,3 | 2,7 | 2,7 | 3,7 | 4,0 |
| **EB-15** / UE-15 | -0,5 | 3,0 | 2,4 | 2,4 | 2,7 | 2,7 |

3. TAULA INDUSTRIAREN ETA ERAIKUNTZAREN KONTUAK
TABLA 3 CUENTAS INDUSTRIALES Y DE LA CONSTRUCCIÓN %

| LANDUN KOPURUAREN SEKTORE BILAKAERA. URTEKO ALDAKUNTZA TASAK<br>EVOLUCIÓN SECTORIAL DEL PERSONAL OCUPADO. TASAS DE VARIACIÓN ANUAL | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 (A) |
|---|---|---|---|---|
| 1 **Nekazaritza-arrantza** / Agropesquero | 1,3 | 0,3 | -7,7 | 2,5 |
| 2 **Industria** / Industria | 1,5 | 2,7 | 6,5 | 4,6 |
| 3 **Eraikuntza** / Construcción | -1,6 | 1,0 | 6,6 | 6,8 |
| 4 **Zerbitzuak** / Servicios | 2,8 | 2,1 | 5,4 | 4,6 |
| 5 **Guztira / Total** | **2,1** | **2,1** | **5,4** | **4,7** |

## Evolución del empleo industrial. Estado y C.A. de Euskadi (³%) — 1. — Industriako enpleguaren bilakaera. Estatua eta Euskal AE (³%)




## Evolución del VAB industrial. Precios constantes. Estado y C.A. de Euskadi (³%). — 2. — Industriako BEGaren bilakaera. Prezio finkoak. Estatua eta Euskal AE (³%)



## Evolución de la productividad industrial. Precios constantes. Estado y C.A. de Euskadi ($^3$%)

## 3.

## Industriako produktibitatearen bilakaera. Prezio finkoak. Estatua eta Euskal AE ($^3$%)




### LA INDUSTRIA DE LA C.A. DE EUSKADI EN 1998.

Si los resultados del sector industrial de la C.A. de Euskadi en 1997 fueron catalogados como unos de los mejores de la década, se puede aseverar que los de 1998 han superado con creces a los obtenidos en el ejercicio anterior. El nada desdeñable crecimiento industrial del 6,6%, alcanzado en 1997, ha sido rebasado por dos puntos y una décima en el siguiente, logrando una tasa interanual del 8,7%, el mayor incremento anual del sector en los últimos veinte años.

Con la salvedad de 1996, en el que creció el 2,0%, la industria vasca lleva acumulando cinco ejercicios de crecimientos superiores al 5,0%, desde los resultados negativos de 1992 y 1993. Además, tanto los datos provisionales del 99 como las previsiones del 2000 confirman la continuidad de esta evolución positiva, ya que en ambos casos se prevén incrementos en torno al 4,0%, según estimaciones disponibles.

En cambio, la trayectoria seguida por el empleo industrial no ha sido siempre paralela a la mantenida por la producción, ni en ritmos, ni en tasas anuales de crecimiento. Su respuesta ha sido más lenta y tardía, si bien se ha acompasado en los dos últimos años de 1997 y 1998, con aumentos anuales del 2,7% y 6,5%, respectivamente. Es a partir de 1997, después de tres años sucesivos de crecimiento del Valor Añadido industrial, cuando se hace visible el proceso de creación neta de empleo en este sector. Algo más de 5000 empleos son generados en 1997 y, sobre todo, se da un salto cuantitativo notable en el 98, en el que se crean 13.000 puestos de trabajo en este sector económico. Los avances de los datos de 1999 cifran el incremento del empleo industrial en el 4,6%; es decir, 10.000 empleos más. De esta manera, en este período de gran dinamismo de la actividad industrial, se recupera una parte importante de los 40.000 efectivos perdidos durante la crisis del período 90-93.

A partir de 1994, año en el que se reanuda la fase de crecimiento económico sostenido en la C.A. de Euskadi, el sector industrial ha ido aportando, año tras año, mejores resultados que el

### EUSKAL AE-KO INDUSTRIA 1998AN

Euskal AEko industria-sektoreak 1997an izan zituen emaitzak hamarkadako onentsuenak zirela kontsideratu zen; baina, ziurtatu daiteke 1998koek askogatik gainditu dituztela aurreko ekitaldian lortutakoak. 1997an lortu zen industria-hazkunde aipagarria (% 6,6) ez da eten, eta bi puntu eta hamarren batengatik gainditu da hurrengoan, % 8,7ko urte arteko tasa lortu delarik. Tasa hori da sektorearen urte arteko gehikuntzarik handiena azkeneko hogei urteetan.

1996ko salbuespena eta guzti (% 2,0 hazi zen urte horretan), gure industriak % 5,0tik gorako hazkundea izan duten bost ekitaldi pilatu ditu, 1992 eta 1993ko emaitza negatiboak gaindituz. 1999ko behin-behineko datuek zein 2000rako aurreikuspenek, gainera, bilakaera positibo horrek jarraituko duela baieztatu dute, zeren bi kasuetan % 4,0 inguruko gehikuntzak aurreikusten dira, erabilgarri dauden zenbatespenen arabera.

Aldiz, industriako enpleguak jarraitu duen ibilbidea ez da beti bat etorri produkzioak izan duenarekin, ez erritmotan, ez urteko hazkunde-tasetan. Enpleguaren erantzuna motel eta berantiarragoa izan da, nahiz eta zertxobait berdindu den azken bi urteetan (1997 eta 1998an), % 2,7 eta % 6,5eko urteko igoerekin, hurrenez hurren. 1997tik aurrera bihurtu da nabarmen enplegu-sortze garbiaren prozesua sektore horretan, industriako balio erantsia hiru urtez jarraian hazi ondoren. 1997an 5.000 enplegutik gora sortu dira eta, batez ere, jauzi kualitatibo nabarmen bat gertatu da 1998an. Urte horretan, 13.000 lanpostu sortu dira sektore ekonomiko horretan. 1999ko datu-aurrerapenek % 4,6an aurreikusten dute industriako enpleguaren gehikuntza, hau da, 10.000 enplegu gehiago. Era horretan, industria-jarduerak dinamismo handia izan duen aldi horretan, eta berreskuratu egin dira 1990-93 aldiko krisialdian galdutako 40.000 landunen zati handi bat.

1994tik aurrera, Euskal AEren hazkunde ekonomiko jarraituko aldia hazi zenetik, industria-sektoreak, urtetik urtera, gainerako sektoreek baino emaitza hobeak eskaini ditu, 1996. urtean izan

resto de los sectores económicos, menos en el año 96, con lo que se confirma, una vez más, el papel protagonista de la industria en la evolución de la economía vasca en los momentos de recuperación y expansión del ciclo económico.

ezik. Hori dela eta, berriro ere, agerian geratu da industriak gure ekonomian duen paper nagusia, batez ere ziklo ekonomikaren suspertze- edo hedatze-aldietan.

En el trienio 96-98, el personal ocupado en el sector industrial experimenta una progresiva evolución. Los ritmos de generación de empleo industrial del 1,5% y 2,7% en 1996 y 1997, son ampliamente superados en 1998, que alcanza un crecimiento del 6,5%, y nos da un aumento del 10,9% para el total del periodo contemplado. Las horas trabajadas registran la misma tasa de subida del 10,9%, y por lo tanto el ratio horas trabajadas / personal ocupado se mantiene constante en las 1.718 horas desde 1995.

1996-98 hirurtekoan, industria-sektoreko landun-kopuruak bilakaera mailakatua izan du. Industriako enplegu-sortzearen erritmoak % 1,5 eta %2,7koak izan ziren 1996 eta 1997an, eta 1998an argi eta garbi gainditu dira, % 6,5eko hazkundea lortu delarik. Beraz, igoera % 10,9koa da aztertutako aldiko guztizkoari buruz. Lan egindako orduek igoera-tasa berdina izan dute (% 10,9), eta, beraz, lan egindako orduak / landun-kopurua ratioak egonkor iraun du 1.718 ordutan, 1995etik.

## Evolución sectorial de los ocupados. C.A. de Euskadi (³%) — 4. — Landunen bilakaera sektoreka. Euskal AE (³%)




## Evolución sectorial de Valor Añadido. Precios constantes. C.A. de Euskadi (³%) — 5. — Balio erantsiaren bilakaera sektoreka. Prezio finkoak. Euskal AE (³%)



## Evolución sectorial de la productividad. Precios constantes. C.A. de Euskadi (³%)

## 6.

## Produktibitatearen bilakaera sektoreka. Prezio finkoak. Euskal AE (³%)




La producción bruta y los consumos intermedios presentan idénticas tasas de variación positiva del 10,1% en 1998, pero sus tasas acumuladas (96-98) muestran diferentes evoluciones; mientras la producción bruta crece un 28,6%, el consumo intermedio lo hace en un 30,6%. Así, en el 97 los consumos intermedios aumentaron más que la producción bruta, 14,6% y 12,1%, respectivamente, pero en el 96 ocurría todo lo contrario, creciendo la producción 0,7 décimas por encima del consumo empleado.

El valor añadido bruto obtiene un crecimiento nominal del 10,0% en 1998 y se eleva al 25,1% el acumulado de los tres ejercicios de referencia (1996-98).

El excedente bruto de explotación crece un 10,9% en 1998, 0,9 puntos más que el valor añadido, pero casi cinco puntos más a lo largo del trienio (+30,0%), debido a que había registrado una subida del 11,0% en 1997, frente al 7,9% del valor añadido.

La participación del excedente bruto en el valor añadido generado sube del 42,9% al 44,3% entre 1995 y 1998. En el sentido contrario, la relación gastos de personal/valor añadido baja del 57,1% al 55,7%. El valor añadido por empleado ha crecido un 13,5% en el período (96-98), en términos nominales y los gastos de personal por empleado un 10,7%. Si nos referimos exclusivamente al ejercicio de 1998, la productividad aparente ha crecido el 2,9% y un 2,7% los gastos de personal unitarios. La participación del excedente en el valor añadido ha ganado una décima, en detrimento de los gastos de personal.

Las amortizaciones ralentizan su curso respecto de los ejercicios anteriores. La evolución del 98, en el que crecen el 4,6%, queda lejos de los fuertes incrementos registrados en 1996 y 1997, en los que alcanzaron tasas del 14,8% y 18,5%, respectivamente. Este menor aumento de las dotaciones de amortización trae como consecuencia un aumento considerable del excedente neto (+14,3%) en 1998.

Los gastos financieros, siguiendo la tendencia de años anteriores, descienden un -10,4% en el último ejercicio y un -38,7% en el período trienal 96-98, en sintonía con el abaratamiento de los créditos y préstamos contraídos por las empresas.

Produkzio gordinak eta bitarteko kontsumoek aldakuntza-tasa positibo berdin-berdinak lortu dituzte (% 10,1) 1998an, baina aldagai horien tasa pilatuek (1996-98) bilakaera desberdinak erakutsi dituzte: produkzio gordina % 28,6 hazi da; bitarteko kontsumoa, aldiz, % 30,6. Izan ere, 1997an bitarteko kontsumoak produkzio gordina baino gehiago igo ziren, % 14,6 eta % 12,1, hurrenez hurren. 1996an, ordea, guztiz kontrakoa gertatu zen, eta produkzioa 0,7 hamarren hazi zen, kontsumo erabiliaren gainetik.

Balio erantsi gordinak %10,0eko hazkunde nominala lortu du 1998an, eta % 25,1era igo da erreferentziako hiru ekitaldietako hazkunde nominala (1996-98).

Ustiapeneko soberakin gordina % 10,9 hazi da 1998an, balio erantsia baino 0,9 puntu gehiago, baina ia bost puntu gehiago hirurtekoan zehar (% +30,0); izan ere, % 11,0ko igoera lortu zuen 1997an, eta balio erantsiak, berriz, % 7,9koa.

Soberakin gordinak balio erantsi sortuan duen parte hartzea % 42,9tik % 44,3ra igo da 1995etik 1998ra. Beste alde batetik, pertsonal-gastuak/balio erantsia erlazioa % 57,1etik % 55,7era jaitsi da. Enplegatuko balio erantsia % 13,5 hazi da aldi horretan (1996-98), kopuru nominaletan, eta enplegatuko pertsonal-gastuak, berriz, % 10,7. Soilik 1998ko ekitaldiko datuak aipatzen baditugu, itxurazko produktibitatea % 2,9 hazi da, eta aleko pertsonal-gastuak, berriz, % 2,7. Soberakinak balio erantsian duen parte hartzea hamarren bat igo da, pertsonal-gastuen kaltetan.

Amortizazioek ibilbidea moteldu dute, aurreko ekitaldien aldean. 1998ko bilakaera (% 4,6 hazi zen) urrun geratzen da 1996 eta 1997an izan ziren gehikuntza handietatik. Azken bi urte horietan, % 14,8 eta % 18,5eko tasak lortu zituzten, hurrenez hurren. Amortizazio-zuzkiduren igoera txikiago horrek ondorio hau ekarri du: soberakin garbiaren igoera aipagarri bat (% 14,3) 1998an.

Finantza-gastuak, aurreko urteetako joerari jarraituz, % -10,4 jaitsi ziren azkeneko ekitaldian, eta % -38,7 1996-98 hiru urteko aldian; jaiste hori bat dator enpresek hartutako kreditu eta maileguen merkatzearekin.

| INDUSTRIA SEKTOREAREN MAKROMAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA<br>UNEKO PREZIOAK. EUSKAL AE<br>EVOLUCIÓN DE LAS PRINCIPALES MACROMAGNITUDES DEL SECTOR INDUSTRIAL<br>PRECIOS CORRIENTES. C.A. DE EUSKADI | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | D % 96/95 | 97/96 | 98/97 | 98/95 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Landun-kopurua NU**<br>Personal ocupado NU | 193.952 | 196.811 | 202.088 | 215.149 | 1,5 | 2,7 | 6,5 | 10,9 |
| **Lan egindako orduak NU°°°**<br>Horas trabajadas NU°°° | 333.506 | 338.274 | 347.116 | 369.823 | 1,4 | 2,6 | 6,5 | 10,9 |
| **Produkzio Gordina fabrikatiko irteeran**<br>Producción Bruta a salida de fábrica | 4.266.432 | 4.443.951 | 4.983.623 | 5.485.682 | 4,2 | 12,1 | 10,1 | 28,6 |
| **Bitarteko Kontsumoa**<br>Consumo Intermedio | 2.717.067 | 2.812.436 | 3.222.465 | 3.547.711 | 3,5 | 14,6 | 10,1 | 30,6 |
| **Balio Erantsi Gordina fabrikatiko irteeran**<br>Valor Añadido Bruto a salida de fábrica | 1.549.365 | 1.631.515 | 1.761.158 | 1.937.971 | 5,3 | 7,9 | 10,0 | 25,1 |
| **Ustiapeneko Soberakin Gordina**<br>Excedente Bruto de Explotación | 600.523 | 633.854 | 703.526 | 780.442 | 5,6 | 11,0 | 10,9 | 30,0 |
| **Amortizazioetarako zuzkidura**<br>Dotaciones para amortizaciones | 181.843 | 208.701 | 247.331 | 258.819 | 14,8 | 18,5 | 4,6 | 42,3 |
| **Ustiapeneko Soberakin Garbia**<br>Excedente Neto de Explotación | 418.680 | 425.153 | 456.195 | 521.623 | 1,5 | 7,3 | 14,3 | 24,6 |
| **Finantza-gastuak**<br>Gastos financieros | 168.191 | 140.785 | 115.009 | 103.039 | -16,3 | -18,3 | -10,4 | -38,7 |
| **Emaitza zergak ordaindu aurretik**<br>Resultado antes de impuestos | 208.203 | 295.290 | 367.459 | 431.724 | 41,8 | 24,4 | 17,5 | 107,4 |
| **Emaitza zergak ordaindu ondoren**<br>Resultado después de impuestos | 177.758 | 264.079 | 325.921 | 373.856 | 48,6 | 23,4 | 14,7 | 110,3 |
| **Cash flow-a**<br>Cash flow | 390.046 | 503.991 | 614.790 | 690.543 | 29,2 | 22,0 | 12,3 | 77,0 |
| **Egindako inbertsioak**<br>Inversión realizada | 192.849 | 248.630 | 267.141 | 336.568 | 28,9 | 7,4 | 26,0 | 74,5 |

Los resultados empresariales contables, antes y después de impuestos, han duplicado su volumen en tres años. Los fuertes crecimientos obtenidos en el 96 se han ido moderando en los siguientes ejercicios. El cash flow ha crecido un 77,0% por el doble impacto de la subida de los resultados empresariales y de la evolución mantenida por las amortizaciones.

Las inversiones netas, total de inversiones menos amortizaciones, vuelven a recuperar su dinamismo en 1998, pasando de los 20.000 millones del 97 a 80.000 millones del 98. Las inversiones totales presentan también una buena evolución (+74,5%) en el período (96-98).

## EVOLUCIÓN SECTORIAL.

El período (96-98) de la actividad industrial se ha saldado con un crecimiento nominal del 25,1% para el conjunto del sector. Sin embargo, cuando hablamos de industria nos referimos a los valores medios y, por lo tanto, es preciso analizar el comportamiento de los diversos sectores para poder examinar más en detalle sus características más relevantes. A fin de visualizar el desigual comportamiento de los sectores, se ha establecido, en los cuadros siguientes, una línea divisoria entre los sectores más dinámicos y los menos pujantes, ordenándolos de mayor a menor, según el porcentaje de crecimiento obtenido por cada uno de ellos, por encima o por debajo de la media industrial. Siguiendo este esquema se han clasificado las diferentes ramas industriales en función de la evolución de una serie de agregados como el valor añadido, personal ocupado, gastos de personal, excedente bruto de explotación, amortizaciones e inversiones.

Entre los sectores más dinámicos, de mayor incremento del valor añadido, que han superado ampliamente la media industrial, figura en primer lugar el del Material de Transporte (+63,4%) que

Enpresen kontabilitate-emaitzek, zergak ordaindu aurretik eta ondoren, bolumena bikoiztu dute hiru urtetan. 1996an lortu ziren hazkunde bikainak moteldu joan dira hurrengo ekitaldietan. Cash-flowa % 77,0 hazi da, eragin bikoitz batengatik: lehenik, enpresen emaitzen igoeragatik, eta bigarren, amortizazioek izan duten bilakaeragatik.

Inbertsio garbiek (inbertsioen guztizkoa ken amortizazioak) aurretik zuten dinamismoa berreskuratu dute 1998an, eta 1997ko 20.000 milioitik 1998ko 80.000 milioira igo dira. Guztizko inbertsioek ere bilakaera ona erakutsi dute (% +74,5) 1996-98 aldian

## SEKTOREKAKO BILAKAERA

Industria-jardueraren 1996-98 aldia % 25,1eko hazkunde nominalarekin itxi da, sektore osoari dagokionez. Hala ere, industria esaten dugunean batez besteko balioak aipatzen ditugu, eta, beraz, nahitaezkoa da sektore bakoitzaren portaera aztertzea, haietako bakoitzaren ezaugarriak xehetasun handiagoz aztertzeko. Sektoreen portaera desberdin hori irudikatu ahal izateko, muga-lerro bat ezarri dugu ondorengo tauletan, sektore dinamikoenen eta hain dinamikoak ez direnen artean, eta handienetik txikienera ordenatu ditugu, haietako bakoitzak lortu duen hazkunde-ehunekoaren arabera, industriaren batezkoaren gainetik edo azpitik. Eskema horri jarraituz, industria-adar guztiak agregatu-multzo baten bilakaeraren arabera sailkatu ditugu, hala nola balio erantsia, landun-kopurua, pertsonal-gastuak, ustiapeneko soberakin gordina, amortizazioak eta inbertsioak.

Sektore dinamikoenen artean, balio erantsiaren gehikuntza handiena eta industriaren batez bestekoa gainditu dutenen artean, aurreneko tokian garraio-materiala agertzen da (% +63,4), zeina

ha subido más del doble que el conjunto industrial. Vienen a continuación Otras manufacturas (+42,4%), Minerales metálicos y no metálicos (+35,7%), Material eléctrico (+31,9%), Maquinaria (+31,7%), Metalurgia y artículos metálicos (+28,0%), e Industria no metálica (+27,8%).

industria-sektore osoa baino bi aldiz gehiago hazi baita. Ondoren, honako hauek datoz: bestelako manufakturak (% +42,4), metalezko eta ez-metalezko meak (% +35,7), material elektrikoa (% +31,9), makineria (% +31,7%), metalgintza eta metalezko gaiak (% +28,0) eta ez-metalezko industria (% +27,8).

5. TAULA — INDUSTRIAREN ETA ERAIKUNTZAREN KONTUAK
TABLA 5 — CUENTAS INDUSTRIALES Y DE LA CONSTRUCCIÓN

PT

| **BALIO ERANTSI GORDINAREN BILAKAERA, SEKTOREKA. UNEKO PREZIOAK. EUSKAL AE**<br>EVOLUCIÓN DEL VALOR AÑADIDO BRUTO POR SECTORES. PRECIOS CORRIENTES. C.A. DE EUSKADI. | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | Δ % 96/95 | 97/96 | 98/97 | 98/95 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **17. Garraio-materiala**<br>Material de transporte | 95.872 | 122.682 | 141.804 | 156.661 | 28,0 | 15,6 | 10,5 | 63,4 |
| **18. Bestelako manufaktura-ind.**<br>Otras manufactureras | 41.237 | 41.687 | 50.402 | 58.724 | 1,1 | 20,9 | 16,5 | 42,4 |
| **4. Metalezko eta ez-metalezko meak**<br>Minerales métalicos y no metálicos | 6.746 | 8.138 | 9.443 | 9.157 | 20,6 | 16,0 | -3,0 | 35,7 |
| **16. Material elektrikoa**<br>Material eléctrico | 82.148 | 87.937 | 93.793 | 108.317 | 7,1 | 6,7 | 15,5 | 31,9 |
| **15. Makineria**<br>Maquinaria | 162.437 | 173.515 | 196.413 | 213.980 | 6,8 | 13,2 | 8,9 | 31,7 |
| **14. Metalgintza eta metalezko artikuluak**<br>Metalurgia y artículos metálicos | 424.813 | 442.897 | 489.642 | 543.579 | 4,3 | 10,6 | 11,0 | 28,0 |
| **13. Ez-metalezko industria**<br>Industria no metálica | 55.278 | 56.362 | 60.991 | 70.656 | 2,0 | 8,2 | 15,8 | 27,8 |
| **INDUSTRIA GUZTIRA**<br>TOTAL INDUSTRIA | **1.549.365** | **1.633.515** | **1.761.158** | **1.937.971** | **5,4** | **13,7** | **10,0** | **25,1** |
| **8. Zurgintza**<br>Industria de la madera | 21.650 | 21.261 | 25.542 | 26.744 | -1,8 | 20,1 | 4,7 | 23,5 |
| **5. Elikagai-industria**<br>Industria de la alimentación | 96.207 | 96.600 | 102.117 | 118.464 | 0,4 | 5,7 | 16,0 | 23,1 |
| **12. Kautxua eta plastikoa**<br>Caucho y plástico | 107.429 | 107.546 | 111.673 | 129.141 | 0,1 | 3,8 | 15,6 | 20,2 |
| **10. Petrolioa fintzea**<br>Refino de petróleo | 163.180 | 160.214 | 177.512 | 186.690 | -1,8 | 10,8 | 5,2 | 14,4 |
| **9. Papera, argitalpena eta grafikoak**<br>Papel, edición y gráficas | 82.678 | 79.245 | 80.964 | 94.403 | -4,2 | 2,2 | 16,6 | 14,2 |
| **7. Larrugintza eta oinetakoak**<br>Industria del cuero y calzado | 1.663 | 1.890 | 1.555 | 1.890 | 13,7 | -17,7 | 21,5 | 13,7 |
| **11. Kimika-industria**<br>Industria química | 67.888 | 69.874 | 72.071 | 76.224 | 2,9 | 3,1 | 5,8 | 12,3 |
| **19. Energia elektrikoa, gasa eta ura**<br>Energía eléctrica, gas y agua | 126.736 | 143.342 | 134.546 | 131.540 | 13,1 | -6,1 | -2,2 | 3,8 |
| **6. Ehungintza eta jantzigintza**<br>Textil y confección | 13.403 | 13.291 | 12.690 | 11.801 | -0,8 | -4,5 | -7,0 | -12,0 |

En la otra vertiente de sectores cuyo crecimiento ha quedado por debajo de la media industrial, todos ellos, salvo uno, Textil y confección (-12,0%), aportan datos positivos. Si además del Textil y confección hacemos abstracción de Energía eléctrica, gas y agua (+3,8%) todos los demás superan la cota de crecimiento del 10,0% en el trienio.

De la misma forma, también podemos analizar la evolución de los diferentes sectores industriales desde la óptica del empleo, referenciándolos al promedio del total, que ha experimentado un aumento de sus efectivos en un 10,9% en el período analizado (96-98).

En el ranking por empleo generado, ocupa la primera posición la Industria de la madera (+21,7%), seguido por Material eléctrico (+17,3%), Material de Transporte (+16,8%), Otras manufacturas (+15,6%), Maquinaria (+13,2%) y Metalurgia y artículos metálicos (+12,8%). En el otro extremo de la tabla aparecen con evoluciones negativas del empleo las ramas de Energía eléctrica (-9,4%), Refino de petróleo (-8,5%), Industria química (-4,0%) y Textil y confección (-1,8%). De la lectura comparada de estas dos tablas se desprende que no existe una relación absoluta entre el crecimiento del valor añadido y la creación de empleo, pero sí se aprecia una correspondencia relativa en la mayoría de los sectores.

La correlación entre la evolución de la ocupación sectorial y los gastos de personal, como era de esperar, se pone de manifiesto al relacionar ambos cuadros de posición relativa de los sectores.

Beste muturrean, industriako batez bestekoaren azpitik geratu direnen artean, guztiek, batek izan ezik, ehungintza eta jantzigintza (% -12,0), datu positiboak eskaini dituzte. Ehungintza eta jantzigintza sektoreaz gain, energia elektrikoa, gasa eta ura sektorea (% +3,8) saihesten badugu, gainerako guztiek % 10,0ko hazkundea gainditu dute hirurtekoan.

Era berean, enpleguaren ikuspegitik ere azter ditzakegu industriako sektore horiek guztiek, guztizkoaren batez bestekoarekin erkatuz. Guztizko kopuru horren landun-kopurua % 10,9 igo da aztertutako aldian (1996-98).

Enplegu sortuaren zerrendan, lehenengo tokian zurgintza dago (% +21,7), eta ondoren, material elektrikoa (% +17,3), garraio--materiala (% +16,8), bestelako manufakturak (% +15,6), makineria (% +13,2), eta metalgintza eta metalezko gaiak (% +12,8). Taularen beste muturrean, enpleguaren bilakaera negatiboekin, honako adar hauek agertzen dira: energia elektrikoa (% -9,4), petrolioa fintzea (% -8,5), kimika-industria (% -4,0), eta ehungintza eta jantzigintza (% -1,8). Taula horien irakurketa erkatutik, honako ondorio hau atera daiteke: ez dago erabateko loturarik balio erantsiaren hazkundearen eta enplegu-sortzearen artean, baina egokitasun erlatibo bat antzematen da sektore gehienetan.

Sektore-enpleguaren eta pertsonal-gastuen bilakaeraren arteko korrelazioa, espero zitekeen moduan, agerian jartzen da sektoreen toki erlatiboari buruzko bi taulak erkatzerakoan. Taula osa-

**LANDUN-KOPURUAREN BILAKAERA, SEKTOREKA**
EVOLUCIÓN DEL PERSONAL OCUPADO POR SECTORES

| | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | D % 96/95 | 97/96 | 98/97 | 98/95 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **8. Zurgintza** Industria de la madera | 4.718 | 5.077 | 5.259 | 5.740 | 7,6 | 3,6 | 9,1 | 21,7 |
| **16. Material elektrikoa** Material eléctrico | 13.927 | 14.495 | 14.862 | 16.335 | 4,1 | 2,5 | 9,9 | 17,3 |
| **17. Garraio-materiala** Material de transporte | 15.683 | 15.999 | 17.714 | 18.311 | 2,0 | 10,7 | 3,4 | 16,8 |
| **18. Bestelako manufaktura-ind.** Otras manufactureras | 9.027 | 9.210 | 9.725 | 10.436 | 2,0 | 5,6 | 7,3 | 15,6 |
| **15. Makineria** Maquinaria | 25.361 | 25.788 | 26.733 | 28.714 | 1,7 | 3,7 | 7,4 | 13,2 |
| **14. Metalgintza eta metalezko artikuluak** Metalurgia y artículos metálicos | 64.943 | 66.217 | 67.850 | 73.286 | 2,0 | 2,5 | 8,0 | 12,8 |
| **INDUSTRIA GUZTIRA** TOTAL INDUSTRIA | **193.952** | **196.811** | **202.088** | **215.149** | **1,5** | **2,7** | **6,5** | **10,9** |
| **13. Ez-metalezko industria** Industria no metálica | 6.538 | 6.609 | 6.742 | 7.059 | 1,1 | 2,0 | 4,7 | 8,0 |
| **9. Papera, argitalpena eta grafikoak** Papel, edición y gráficas | 11.035 | 11.037 | 11.216 | 11.882 | 0,0 | 1,6 | 5,9 | 7,7 |
| **4. Metalezko eta ez-metalezko meak** Minerales métalicos y no metálicos | 751 | 817 | 773 | 797 | 8,8 | -5,4 | 3,1 | 6,1 |
| **12. Kautxua eta plastikoa** Caucho y plástico | 14.240 | 14.311 | 14.107 | 15.085 | 0,5 | -1,4 | 6,9 | 5,9 |
| **5. Elikagai-industria** Industria de la alimentación | 12.540 | 12.480 | 12.606 | 13.097 | -0,5 | 1,0 | 3,9 | 4,4 |
| **7. Larrugintza eta oinetakoak** Industria del cuero y calzado | 451 | 462 | 426 | 454 | 2,4 | -7,8 | 6,6 | 0,7 |
| **6. Ehungintza eta jantzigintza** Textil y confección | 3.327 | 3.211 | 3.300 | 3.267 | -3,5 | 2,8 | -1,0 | -1,8 |
| **11. Kimika-industria** Industria química | 6.261 | 6.112 | 5.907 | 6.012 | -2,4 | -3,4 | 1,8 | -4,0 |
| **10. Petrolioa fintzea** Refino de petróleo | 846 | 811 | 788 | 774 | -4,1 | -2,8 | -1,8 | -8,5 |
| **19. Energia elektrikoa, gasa eta ura** Energía eléctrica, gas y agua | 4.304 | 4.172 | 4.080 | 3.900 | -3,1 | -2,2 | -4,4 | -9,4 |



**PERTSONAL-GASTUEN BILAKAERA, SEKTOREKA. EUSKAL AE**
EVOLUCIÓN DE LOS GASTOS DE PERSONAL POR SECTORES. C.A. DE EUSKADI

| | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | D % 96/95 | 97/96 | 98/97 | 98/95 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **18. Bestelako manufaktura-ind.** Otras manufactureras | 24.753 | 25.084 | 31.731 | 37.742 | 1,3 | 26,5 | 18,9 | 52,5 |
| **16. Material elektrikoa** Material eléctrico | 52.594 | 55.997 | 61.488 | 69.793 | 6,5 | 9,8 | 13,5 | 32,7 |
| **8. Zurgintza** Industria de la madera | 10.904 | 10.884 | 12.941 | 14.328 | -0,2 | 18,9 | 10,7 | 31,4 |
| **14. Metalgintza eta metalezko artikuluak** Metalurgia y artículos metálicos | 261.465 | 291.800 | 293.055 | 341.407 | 11,6 | 0,4 | 16,5 | 30,6 |
| **13. Ez-metalezko industria** Industria no metálica | 28.708 | 30.369 | 33.287 | 35.829 | 5,8 | 9,6 | 7,6 | 24,8 |
| **15. Makineria** Maquinaria | 107.588 | 110.795 | 120.915 | 132.978 | 3,0 | 9,1 | 10,0 | 23,6 |
| **INDUSTRIA GUZTIRA** TOTAL INDUSTRIA | **798.333** | **841.392** | **887.876** | **980.363** | **5,4** | **5,5** | **10,4** | **22,8** |
| **9. Papera, argitalpena eta grafikoak** Papel, edición y gráficas | 43.542 | 43.185 | 48.100 | 52.178 | -0,8 | 11,4 | 8,5 | 19,8 |
| **12. Kautxua eta plastikoa** Caucho y plástico | 63.464 | 64.338 | 69.435 | 75.107 | 1,4 | 7,9 | 8,2 | 18,3 |
| **4. Metalezko eta ez-metalezko meak** Minerales métalicos y no metálicos | 3.347 | 4.010 | 3.418 | 3.945 | 19,8 | -14,8 | 15,4 | 17,9 |
| **17. Garraio-materiala** Material de transporte | 73.575 | 77.214 | 85.036 | 86.446 | 5,0 | 10,1 | 1,7 | 17,5 |
| **5. Elikagai-industria** Industria de la alimentación | 42.653 | 41.701 | 43.572 | 46.082 | -2,2 | 4,5 | 5,8 | 8,0 |
| **11. Kimika-industria** Industria química | 31.884 | 33.000 | 33.395 | 33.914 | 3,5 | 1,2 | 1,6 | 6,4 |
| **10. Petrolioa fintzea** Refino de petróleo | 7.107 | 6.710 | 7.218 | 7.300 | -5,6 | 7,6 | 1,1 | 2,7 |
| **7. Larrugintza eta oinetakoak** Industria del cuero y calzado | 996 | 1.112 | 1.163 | 988 | 11,7 | 4,6 | -15,1 | -0,8 |
| **6. Ehungintza eta jantzigintza** Textil y confección | 7.540 | 6.549 | 7.099 | 7.331 | -13,1 | 8,4 | 3,3 | -2,8 |
| **19. Energia elektrikoa, gasa eta ura** Energía eléctrica, gas y agua | 38.213 | 38.622 | 36.023 | 34.995 | 1,07 | -6,7 | -2,9 | -8,4 |

8. TAULA — INDUSTRIAREN ETA ERAIKUNTZAREN KONTUAK
TABLA 8 — CUENTAS INDUSTRIALES Y DE LA CONSTRUCCIÓN

**USTIAPENEKO SOBERAKIN GORDINAREN BILAKAERA, SEKTOREKA. EUSKAL AE**
EVOLUCIÓN DEL EXCEDENTE BRUTO DE EXPLOTACIÓN POR SECTORES. C.A. DE EUSKADI

| | | | | | D % | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 96/95 | 97/96 | 98/97 | 98/95 |
| **17. Garraio-materiala** Material de transporte | 24.319 | 47.020 | 59.688 | 72.654 | 93,4 | 26,9 | 21,7 | 198,8 |
| **4. Metalezko eta ez-metalezko meak** Minerales métalicos y no metálicos | 3.346 | 4.074 | 5.968 | 5.107 | 21,8 | 46,5 | -14,4 | 52,6 |
| **15. Makineria** Maquinaria | 55.975 | 63.138 | 75.283 | 82.147 | 12,8 | 19,2 | 9,1 | 46,8 |
| **7. Larrugintza eta oinetakoak** Industria del cuero y calzado | 655 | 769 | 379 | 873 | 17,4 | -50,7 | – | 33,3 |
| **13. Ez-metalezko industria** Industria no metálica | 26.227 | 25.777 | 27.372 | 34.747 | -1,7 | 6,2 | 26,9 | 32,5 |
| **16. Material elektrikoa** Material eléctrico | 30.650 | 32.943 | 33.743 | 40.429 | 7,5 | 2,4 | 19,8 | 31,9 |
| **INDUSTRIA GUZTIRA** TOTAL INDUSTRIA | **600.523** | **633.854** | **703.526** | **780.442** | **5,6** | **11,0** | **10,9** | **30,0** |
| **18. Bestelako manufaktura-ind.** Otras manufactureras | 16.325 | 16.475 | 18.345 | 21.195 | 0,9 | 11,4 | 15,5 | 29,8 |
| **14. Metalgintza eta metalezko artikuluak** Metalurgia y artículos metálicos | 162.519 | 151.007 | 197.152 | 202.773 | -7,1 | 30,6 | 2,9 | 24,8 |
| **5. Elikagai-industria** Industria de la alimentación | 38.574 | 38.212 | 40.389 | 48.007 | -0,9 | 5,7 | 18,9 | 24,5 |
| **12. Kautxua eta plastikoa** Caucho y plástico | 43.494 | 43.182 | 42.155 | 53.999 | -0,7 | -2,4 | 28,1 | 24,2 |
| **11. Kimika-industria** Industria química | 35.718 | 36.649 | 38.583 | 42.194 | 2,6 | 5,3 | 9,4 | 18,1 |
| **8. Zurgintza** Industria de la madera | 10.715 | 10.373 | 12.527 | 12.381 | -3,2 | 20,8 | -1,2 | 15,5 |
| **10. Petrolioa fintzea** Refino de petróleo | 22.645 | 16.135 | 19.132 | 25.658 | -28,8 | 18,6 | 34,1 | 13,3 |
| **19. Energia elektrikoa, gasa eta ura** Energía eléctrica, gas y agua | 84.305 | 100.187 | 93.879 | 91.415 | 18,8 | -6,3 | -2,6 | 8,4 |
| **9. Papera, argitalpena eta grafikoak** Papel, edición y gráficas | 39.128 | 36.278 | 33.346 | 42.318 | -7,3 | -8,1 | 26,9 | 8,2 |
| **6. Ehungintza eta jantzigintza** Textil y confección | 5.928 | 6.627 | 5.585 | 4.545 | 11,8 | -15,7 | -18,6 | -23,3 |

9. TAULA — INDUSTRIAREN ETA ERAIKUNTZAREN KONTUAK
TABLA 9 — CUENTAS INDUSTRIALES Y DE LA CONSTRUCCIÓN

**AMORTIZAZIOEN BILAKAERA, SEKTOREKA. EUSKAL AE**
EVOLUCIÓN DE LAS AMORTIZACIONES POR SECTORES. C.A. DE EUSKADI

| | | | | | D % | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 96/95 | 97/96 | 98/97 | 98/95 |
| **8. Zurgintza** Industria de la madera | 1.739 | 1.824 | 3.073 | 3.938 | 4,9 | 68,5 | 28,2 | 126,5 |
| **7. Larrugintza eta oinetakoak** Industria del cuero y calzado | 46 | 42 | 31 | 96 | -8,7 | -26,2 | – | 108,7 |
| **12. Kautxua eta plastikoa** Caucho y plástico | 9.321 | 9.987 | 13.904 | 19.415 | 7,2 | 39,2 | 39,6 | 108,3 |
| **4. Metalezko eta ez-metalezko meak** Minerales métalicos y no metálicos | 842 | 1.295 | 1.181 | 1.585 | 53,8 | -8,8 | 34,2 | 88,2 |
| **17. Garraio-materiala** Material de transporte | 13.944 | 23.722 | 27.482 | 24.531 | 70,1 | 15,9 | -10,7 | 75,9 |
| **18. Bestelako manufaktura-ind.** Otras manufactureras | 3.383 | 2.910 | 5.781 | 5.644 | -14,0 | 98,7 | -2,4 | 66,8 |
| **16. Material elektrikoa** Material eléctrico | 6.185 | 7.177 | 8.904 | 9.976 | 16,0 | 24,1 | 12,0 | 61,3 |
| **15. Makineria** Maquinaria | 14.322 | 15.535 | 19.988 | 22.339 | 8,5 | 28,7 | 11,8 | 56,0 |
| **14. Metalgintza eta metalezko artikuluak** Metalurgia y artículos metálicos | 52.027 | 57.997 | 68.994 | 76.281 | 11,5 | 19,0 | 10,6 | 46,6 |
| **5. Elikagai-industria** Industria de la alimentación | 10.580 | 11.762 | 13.569 | 15.409 | 11,2 | 15,4 | 13,6 | 45,6 |
| **INDUSTRIA GUZTIRA** TOTAL INDUSTRIA | **181.843** | **208.701** | **247.331** | **258.819** | **14,8** | **18,5** | **4,6** | **42,3** |
| **13. Ez-metalezko industria** Industria no metálica | 7.047 | 6.314 | 9.007 | 9.865 | -10,4 | 42,7 | 9,5 | 40,0 |
| **11. Kimika-industria** Industria química | 8.753 | 8.688 | 12.183 | 11.629 | -0,7 | 40,2 | -4,6 | 32,9 |
| **9. Papera, argitalpena eta grafikoak** Papel, edición y gráficas | 12.658 | 13.539 | 14.713 | 15.923 | 7,0 | 8,7 | 8,2 | 25,8 |
| **6. Ehungintza eta jantzigintza** Textil y confección | 1.133 | 1.009 | 1.053 | 1.272 | -10,9 | 4,4 | 20,8 | 12,3 |
| **10. Petrolioa fintzea** Refino de petróleo | 6.840 | 7.259 | 7.740 | 7.316 | 6,1 | 6,6 | -5,5 | 7,0 |
| **19. Energia elektrikoa, gasa eta ura** Energía eléctrica, gas y agua | 33.023 | 36.444 | 39.728 | 33.600 | 10,4 | 9,0 | -15,4 | 1,7 |

De dieciséis sectores que componen la tabla, seis superan el valor medio del crecimiento obtenido por los gastos de personal y las diez restantes quedan por debajo de la divisoria. Energía eléctrica, gas y agua (-8,4%), Textil y Confección (-2,8%) Industria de cuero y calzado (-0,8%) presentan valores negativos en el total del período considerado.

tzen duten hamasei sektoreetatik, seik gainditu egiten dute pertsonal-gatuengatik lortutako hazkundearen batez besteko balioa, eta gainerako hamarrak, muga-lerroaren azpitik geratzen dira. Energia elektrikoa, gasa eta ura (% -8,4), ehungintza eta jantzigintza (% -2,8), larruaren eta oinetakoen industria (% -0,8) adarrek balio negatiboak izan dituzte aztertutako aldiaren guztizkoan.

El aumento de los gastos de personal ha sido del 22,8% en el período (96-98), 2,3 puntos inferior al de VAB industrial, mientras el otro componente del valor añadido, el excedente bruto, ha crecido 7,2 puntos más.

Pertsonal-gastuen igoera % 22,8koa izan da 1996-98 aldian, industriako BEGa baino 2,3 puntu txikiagoa; balio erantsiaren beste osagaia, soberakin gordina, % 7,2 puntu gehiago hazi da.

En el sector del Material de Transporte el excedente bruto obtiene un extraordinario crecimiento del 198,8%, muy por encima de la media (+30,0%). Otros cinco sectores más superan la media: Minerales metálicos y no metálicos, Maquinaria, Industria del Cuero y calzado, Industria no metálica y Material eléctrico. Únicamente el sector de Textil y confección presenta una evolución negativa (-23,3%) de esta variable.

Garraio-materiala sektorean, soberakin gordinak aparteko hazkundea lortu du (% 198,8koa), batez bestekoak baino askoz handiagoa (% +30,0). Beste bost sektorek gainditu dute batez bestekoa: metalezko eta ez-metalezko meak, makineria, larruaren eta oinetakoen industria, ez-metalezko industria eta material elektrikoa. Soilik ehungintza eta jantzigintza sektoreak izan du bilakaera negatiboa (% -23,3) aldagai horretan.

En la política de amortizaciones se observan diferencias substanciales entre los sectores. Destacan por arriba la Industria de la madera (+126,5%) y Caucho y plástico (+108,7%), muy lejos del valor promedio industrial (+42,3%).

Amortizazioen politikan, funtsezko aldeak ikusten dira sektoreen artean. Goitik, zurgintza (% +126,5) eta kautxua eta plastikoa (% +108,7) sektoreak gailentzen dira, oso urrun baitaude industriako batez besteko baliotik (% +42,3).

10. TAULA — INDUSTRIAREN ETA ERAIKUNTZAREN KONTUAK
TABLA 10 — CUENTAS INDUSTRIALES Y DE LA CONSTRUCCIÓN

**INBERTSIOEN BILAKAERA, SEKTOREKA. EUSKAL AE**
EVOLUCIÓN DE LAS INVERSIONES POR SECTORES. C.A. DE EUSKADI

| | | | | | D % | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1995** | **1996** | **1997** | **1998** | **96/95** | **97/96** | **98/97** | **98/95** |
| **6. Ehungintza eta jantzigintza**<br>Textil y confección | 446 | 1.121 | 771 | 3.155 | – | -31,2 | – | 607,4 |
| **12. Kautxua eta plastikoa**<br>Caucho y plástico | 10.103 | 13.531 | 16.612 | 28.946 | 33,9 | 22,8 | 74,3 | 186,5 |
| **4. Metalezko eta ez-metalezko meak**<br>Minerales métalicos y no metálicos | 586 | 1.424 | 1.959 | 1.578 | – | 37,6 | -19,5 | 169,3 |
| **16. Material elektrikoa**<br>Material eléctrico | 7.349 | 13.091 | 11.291 | 16.912 | 78,1 | -13,8 | 49,8 | 130,1 |
| **15. Makineria**<br>Maquinaria | 16.224 | 23.530 | 29.286 | 34.775 | 45,0 | 24,5 | 18,7 | 114,3 |
| **7. Larrugintza eta oinetakoak**<br>Industria del cuero y calzado | 128 | 66 | 92 | 264 | -48,4 | 39,4 | – | 106,3 |
| **8. Zurgintza**<br>Industria de la madera | 3.216 | 2.292 | 3.296 | 6.423 | -28,7 | 43,8 | 94,9 | 99,7 |
